

LEITZA ▶

Euria eta hotza Herri Krosean

Etxeberria eta Intxausti izan ziren onenak ▶ 7



Alegian «gustura» gelditu dira Zerbeza Festarekin

EMAITZA ▶ Emaidza onak lortu ditu Intxurre kirol elkarteak: 3.000 euroko irabazia

ERANTZUNA ▶ Kanpoko jende asko ibili zen, baina herritarren erantzuna «oso eskasa» izan zen ▶ 5



600 akordeoijole eta abeslari igandeko Topaketan

TOLOSA ▶ 600 lagun inguru elkartu ziren igandean Tolosan akordeoijole, abeslari, perkusiojole, dantzari eta erraldioen artean Beotibar pilotalekuan III. Akordeoi Topaketan. Euskal Herriko leku askotatik etorriak ziren Hauspoz elkarteak, Tolosako Udal Musika Eskolak eta Tolosako Udalak deituta. Azken entseguan

egin ondoren, kalejira egin zuten Tolosako kaleetan zehar —zortea izan zuten eguraldiak tarte horixe iraun zuelako ateri— eta eguerdian kontzertu bat eskaini zuten jendez betetako —ateak itxi egin behar izan zituzten jende gehiago ez zelako sartzen— Beotibar pilotalekuan —argazkian—. HITZA ▶ 3

LEITZA-ZIZURKIL ▶

Rekondo txapeldun eta Otaegi finalera

Urrezko Aizkolarien Lehiaketan aritu dira bi gazteak ▶ 4

OSCAR RENEDO ▶ PSE-EE



LEIRE MONTES

«Aldaketa behar dugu, haize berriak nahi ditugu»

«Etorkizuna jokoan» dagoela dio zinegotziak ▶ 2

Telebistako SPOTAK

APIRILAK 12, ASTEARTEA **tve** 19,45tan
etb 1 00,00tan
etb 2 00,30tan

APIRILAK 13, ASTEAZKENA **tve** 19,45tan

APIRILAK 14, OSTEGUNA **tve** 19,45tan

APIRILAK 15, OSTIRALA **tve** 19,45tan

DIRU LAGUNTZA / AYUDA ECONOMICA
Euskadiko Kutxa / Caja Laboral
3035 0083 20 0830096411

BOZKATU



DEMOKRAZIA
eta BAKEA

ASTEAZKENA 13

LAUDIO
Herriko Plazan

OSTIRALA 15

BILBO
Plaza Berrian

OSCAR RENEDO ▶ PSE-EE-KO ZINEGOTZIA TOLOSAKO UDALEAN ETA ESKUALDEKO IDAZKARI NAGUSIA



TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Amarozko dispen.: 67 26 37
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ Tolargi: 65 00 16
 ▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
 ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
Villabona-Aitzondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
 ▶ Leitzaurren autob.: 948 221015
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
 ▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888
 ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
 ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz. Amaroz, 9
 (Tolosa). 943 67 51 18
 Plaza. Elbarren, 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
 villabona-aitzondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaaldea. 687 41 00 22
 anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

«Aldaketa behar dugu; hori da gure nahia: haize berriak Euskadirentzat»

«Etorkizuna jokoan» dela dio Oscar Renedo Tolosako PSE-EEko zinegotziak; haren ustez, «Euskadirentzat legegintzaldi garrantzitsuenetarikoa» da datorrena

LEIRE MONTES

Sindikalgintzan hasi zen politika munduan, 23 urte zituela. 26rekin sartu zen PSE-EEn. Udaletxea «politikarako eskolarik onena» dela dio Oscar Renedok (Burgos, 1962). Zinegotzia da Tolosako Udalean duela 13 urtetik, eta eskualdeko PSE-EEko idazkari nagusia. Bere alderdiak irabaziko duen «uste osoarekin» begiratzen die hauteskudeei.

'Elkarrekin bizi. Bakean bizi' da zuen kanpainaren leloa.

Elkarbizitzan jarri nahi ditugu indarrak. Gizartea zatiturik dago jada, eta haustura planek ez diote mesederik egiten. Gauzak birplanteatzeko garaiz gaude oraindik, aurrera egiteko garaia da. Denontzat dago lekua. Aniztasunak egiten du aberats herri bat, eta lurralde honek badu. Jendea elkartu nahi dugu, inor baztertu gabe.

Une garrantzitsuan gaudela uste al duzu?

Oso garrantzitsua da bizi dugun aroa. Eta Madrilgo gobernu aldaketak zeresan handia izan du. Azken lau urteak penagarriak izan dira, bi mutur elkarren aurka. Orain, beste talante bat du Madril: Jose Luis Rodríguez Zapaterok argi utzi du hasieratik elkarriketarako prest dagoela. Gainera, ETA ahul dago. Hori guztia aprobetxatu egin behar dugu denon artean akordioak lortzeko, batasun demokratikoa ezinbestekoa da. Aldaketarako baldintzak badaude; hori bai, premisa bat beharrezkoa da: indarkeria bultzatzen dutenek indarkeria bertan behera uztea.

Hezkuntza da programaren ardatzetako bat.

Euskal gatazka deiturikoarekin denbora asko ari gara galtzen, pausorik eman gabe. Horregatik, herritarren beharrei erreparatu diegu. Hezkuntza da ardatzetako bat: sistemak aldaketa behar du; euskara ez jakiteagatik irakasleek jasaten duten bazterketa ezin dugu onartu. Bestalde, gobernuak Fernando Buesak hezkuntzaren arloan egindako lana alboratu izana salatu nahi dugu.

Programako zein beste gai nabarmenduko zenuke?

Etxebizitzaren arloan, Lurzoruaren Lege eraginkorra egin be-



NOELIA LATABURU

har dugu, gehiegikeriak eta espekulazioak saihesteko. Gizarte-etxebizitzak sustatu behar ditugu, eta gazteei erraztasunak eman. Larria da arazoa. Hirugarren adinaren alorrean, gizatalde zerbitzuen mapa berria bultzatu nahi dugu, benetako beharrak islatzen dituen. Gerontologikoaren itxierarekin, Aldundiak, hau da, EAJK, Tolosa eta Tolosaldea beharrezko zituen plazarik gabe utzi du.

Euskararen alorrean, zer?

Euskararen kontrakoak bagina bezala jarri nahi gaituzte leku guztietan, eta hori ez da inondik inora egia. Tolosako Udalean, kasu, urtero onartu dugu euskararen inguruko barne arautegia. Eta hemen bezala beste lekuetan. Gure kontrako arma gisa erabiltzen dute askok euskara; eta horiexek, euskara armatzat dutenek, egiten diote min handien hizkuntzari. Euskara denona da. Egin die zaiokogun mesederik handiena politikatik banatzea da.

Zer eskaini dezake Patxi Lopezek lehendakari gisa?

Lehendakari izateko beharrezkoak diren dohainak ditu. Eskarmentu handiko gizona da. Eta elkarriketarako gogoia du. Ez du inor baztertzen, denekin hitz egiteko prest dago, oso argi du denontzat gobernatu nahi duela. Euskadiko Zapate-

ro dela esango nuke: talante irekiarekin, eta gizarte gaieko ardurarekin.

Zer iritzi duzu beste hautagaiei buruz?

Maria San Gilek etengabe dio Patxi Lopez bere lehendakariordea izango dela. Hasteko, guk alde handia aterako diogula esango nioke. Gainera, behin eta berriro esan dugu ez dugula inorekin gobernatuko. Alderdi Popularrak bere horretan jarraitzen du, enfrontamendua bilatuz, guztiari ezetz esaten. Ez gara joku horretan sartuko. Ibarretxeri bere plana birplanteatzeko esango nioke: etxean konpon dezala konpondu beharrekoa, eta orduan jango gara guztiok Madriler. Euskal gizarteak ez du zatiketarik nahi. Javier Madrazo ez betetzearen eta kontraesanen erregea da: gauza asko egin dituela dio, baina hori ez da errealitatean islatzen. Zer egiten du ezkerreko batek eskuinarekin gobernatzen? EB-IUK bi aurpegi ditu: bat Madril eta bestea hemen. Aralar gure kontra egiten ari da nabarmen. Ikusteko dago zer egin dezakeen; ea beste politika motarako zubiak eraikitzeke gai diren.

Bi taldek ezin izango dute hauteskundeetara aurkeztu.

Inor ez gaude eroso egoera honetan, guztiak ezin parte har-

tzea ez da ona. Baina eskatzen zaiena oso sinplea da: aurkeztu ahal izateko ETaren biolentzia gaitzetsi besterik ez dute. Interesia izango balute joko demokratikoan aritzeko, honezkerok gaitzetsi egingo zuten; horretarako ausardia politikoa behar da, baina. Askok aipatu dezakeen alderdia da, batez ere ezkerrearen ikuspuntutik. Batzuetan ilegalizazioan eroso daudela ematen du. Dena den, guk ez ditugu alderdiak ilegalizatu, epaileek baizik. Iritzia eman dezakegu, baina legea bete besterik ez zaigu geratzen.

EHAken aldeko botua eskatu du Batasunak.

Alderdi guztiak bezala, ikerturik izan da eta badirudi ez dutela ilegalizaziorako arrazoirik aurkitu. Justiziak erabaki duena errespetatu behar da. Batasunak EHAken aldeko botoa eskatu duela? Bakoitzak nahi duenaren alde eska dezake botua.

Demokratikoa izango al da Legebiltzarra?

Onena denok egotea izango litzateke, herritarren multzo bategi ez baitu bestela ordezkaritza. Hala ere, Legebiltzarra demokratikoa izango da. Hauteskundeetara ezin aurkezteko arazoa ez da gurea.

Zein da zuen aurkari politikoa gogorrena?

Hauteskundeotan edonon ditugu arerioak: batzuentzat nazionalisten aldea egin dugu; besteentzat, PPren eskutik goaz. Ospe-galtzearen politika indarrean dago. Aurkaririk gogorrena EAJ-EA izango da. PP ez da iritsiko gu arduratzera.

Emaitzak iragartzera ausartuko al zinateke?

Patxi Lopez izango dugu hurrengo lehendakari. EAJ-EA izango da bigarren indarra, PP hirugarren, eta EB-IU laugarren. Besteak ez ditut oso argi. **Etorkizunerako desiorik?** Irabaziko dugun uste osoarekin goaz hauteskundeetara. 25 urte gobernuan urte asko dira, gehiegi. Txandatzek mantentzen du bizirik demokrazia. Aldaketa behar dugu; hori da gure nahia: haize berriak Euskadirentzat. Bozkatzera animatu nahi dut jendea, etorkizuna jokoan baita; legegintzaldi garrantzitsuenetarikoa da hau Euskadirentzat.

SANJOANAK ▶

Jai Batzordeak bilerara deitu du gaur iluntzerako

San Joan jaiak prestatzen hasteko garaia dela oharraz du Tolosako Jai Batzordeak, eta horretarako, bilera deitu du gaurko; 19:00etan bilduko dira, Kultur Etxean. Bestalde, Udaberri dantzari taldeak adierazi du sanjoanetan Bordondantzan ateratzeko entseguak ostegunean hasiko direla, 20:30ean Igarondo igerilekuan. Ostegunero izango dira entseguak.

MUSIKA ▶

Zuzeneko berezia eskaini du Bide Ertzean taldeak

Esana zuten ekitaldia aurkezterakoan Tolosan jotzea berezia dela haientzat, eta hala izango da. Bide Ertzean taldekoek kontzertu berezia eman baitzuten ostiral gauean Leidorren. Aurreko diskoetako kantuak, betikoak, modu ezberdinean aurkeztu zituzten *Esan bare*, disko berrikoak eskaintzen hasi aurretik. Gustura utzi zituzten hara bildutakoak.



Bide Ertzean taldeko kideak, ostiralean, Leidor aretoan zuzeneko kontzertua ematen. SUSANA SEGUROLA

III. AKORDEOI TOPAKETA ▶

Soinujoleen saio polit eta ikusgarria

Euskal Herriko hainbat lekutatik etorri, eta ikuskizuna eman zuten igandean

IRATXE ETXEBESTE

«Atzo [igandekoaz] egin zuen eguraldia ikusita, mirari modukoa izan zen eguerditik ordu batera ateri egotea». Horixe esan dio HITZARI Tolosako Udala Musika Eskolako zuzendari Amaia Lizasok III. Akordeoi Topaketari buruz galdetutakoan. Izan ere, ez zen nolana hikoia izan herenegun bota zuen euri jasa. Hauspoz, Euskal Herriko Akordeoi elkarteak antolatuta egin zuten hirugarrenez Akordeoi Topaketa igandean Tolosan. Kalean lehenengo jarduna, eta Beotibar pilotalekuan gainerakoak.

Antolatzaileak urduri ziren, euria eginez gero Euskal Herri osotik etorritako musika eskoletako ordezkariak ez zutelako kalera irteterik izango. Eguraldiak hala nahi, eta ez zuen, ordea, tantorik bota eguerditik aurrera. Kalejira egiteko moduan ziren, beraz. Bost taldetan banatuta, herriko gune ezberdinak zeharkatu zituzten bateko eta besteko soinujoleek; herriko musika eskoletako zuzendariak gidatuta, gehienetan. Aurrean zihozanek zenbakidun kartelekin zuzentzen zituzten besteak, Korreo kalea, plaza Berrira, edota Zerkau-sira zihozan adierazteko. Gurasoen eta lagunen begiradapean egin zuten, nolana ere, gehientsuenek egin beharre-

koa. Eguerdirako Trianguloan egin zuten bat soinujole denek, eta desfilean joan ziren Beotibar pilotalekura.

Lehenagotik jana zuten otarteko bana, antolatzaileek banan-banan jardun zutelako parte-hartzaile guztiei jatekoa banatzen. «Koldo Tarragona eta biok aritu gara topaketaren koordinazio lanetan, baina laguntza ikaragarria izan dugu. Udalaren, musika eskoletako irakasleen, gurasoen... aldetik; ez dugu hitzik horiei guztiei egindakoagatik eskerrak emateko». Laudorioak beharrezkoak izaten dira gisa horretako jaialdietan.

13:00ak aldera iritsi zen topaketako unerik gogoangarriena. Udaberriko dantzarien, Laskorain eta Hodeitruk abesbatzetako kideen, Tolosako Erraldoi Konpartsakoen eta perkusiojoleen laguntzarekin, batera jardun zuten musika eskoletako akordeoilari guztiek aurrez prestatutako kantuak Beotibarrera bildutako jendezari eskaintzen: filmetako soinu bandak, euskal kantuak, valsak, jotak... 600 bat lagun ziren guztira. Ikus-entzuleak gutxiago ez, eta antolatzaileek itxi egin behar izan zituzten Beotibarreko ateak, «jende gehiago sartzen ez zelako».

Topaketaren hurrengo edizioa non izango den balorazioa egiterakoan erabakiko dute.



Kalejiran irten zuten goizean; argazkian, Larrañagaren orkestra. HITZA



350etik gora izan ziren Beotibarren bildutako akordeoilariak. HITZA



Laskorain eta Hodeitruk abesbatzek ere hartu zuen parte. HITZA

DATUAK ▶



Erraldoien konpartsa. HITZA

PARTE-HARTZAILEAK

- ▶ Euskal Herri osotik etorritako 28 musika eskola.
- ▶ 375 bat akordeoilari.
- ▶ Laskorain ikastolako eta Hodeitruk-eko 200 kantari.
- ▶ 6 perkusiojole.
- ▶ Udaberri dantza taldeko 6 dantzari.
- ▶ Tolosako Erraldoien Konpartsa.
- ▶ Jesus Mari Jauregi bakarlarria.

KALEJIRA

- ▶ 5 ibilbide desberdin egin zituzten herrian, kalejiran, 75na pertsonako 5 taldetan, herria zeharkatzeko.

KONTZERTUA

- ▶ Hiru ordu laurden iraun zuen. Bukaeran, oroigarriak banatu zizkieten musika eskoletako arduradunei.



Udaberriko dantzariak. HITZA

ASTE BURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.
Hegoalde-Gironella 2-2

1. Maila A.

Jarrilleros-Ibarra 3-2

1. Maila B.

Laskorain-Piti Pascual 6-3

ESKU PILOTA

BANAKAKO TXAPELKETA

Lasa III.a-Bengoetxea VI.a 22-12

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Tolosa-Mutriku 1-1

Saillkapena ▶

1. Tolosa 66 puntu

2. EHU/UPV 65 puntu

3. Ordizia 57 puntu

4. Zarautz 54 puntu

5. Real Union B 54 puntu

6. Trintxerpe 48 puntu

7. Zestoa 43 puntu

8. Mondragon 42 puntu

9. Hondarribia 41 puntu

Nesken Liga.

Tolosa-Mondragon 2-0

Lurreldekako 1. Maila.

Martutene-Tolosa B 1-1

Saillkapena ▶

1. Allerru 50 puntu

2. Irun 1902 49 puntu

3. Euskalduna 47 puntu

4. Beti Ona 44 puntu

5. Martutene 43 puntu

6. Lengokoak 39 puntu

7. Ostadar 38 puntu

8. Behobia 36 puntu

9. Vasconia 35 puntu

10. Roteta 35 puntu

11. Astigarragako 34 puntu

12. Mariño 30 puntu

13. Gure Txokoa 27 puntu

14. Amara Berri 20 puntu

15. Ordizia 19 puntu

16. Tolosa B 13a puntu

Lurreldekako 2. Maila.

I. Taldea. Igoera fasea

Gazteak-Danena 3-4

II. Taldea. Igoera fasea

Eibartarrak-Intxurre 1-1

II. Taldea. Kopa

Atsedena: Amaro

Saillkapena ▶

1. Lagun Onak 24 puntu

2. Usurbil 16 puntu

3. Danena 12 puntu

4. Trintxerpe 9 puntu

1. Dunboa 21 puntu

2. Internacional 13 puntu

3. Legazpiko Gazte. 12 puntu

4. Hondarribia 11 puntu

5. Sanpedrotarra 11 puntu

6. Eibartarrak 8 puntu

7. Intxurre 7 puntu

1. Lasarte Oria 18 puntu

2. Amaro 17 puntu

3. Urki 15 puntu

4. La Salle 14 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa-Zalla 1-0

Jubenilen 1. Maila.

Ikasberri-Billabona 1-1

Internacional-Intxurre 1-4

FUTBOL 7

1. Maila. A Taldea.

Ibarrako GA-Kroms 3-3

2. Maila. A Taldea

Cesar R. Seguros-Lanbroa Dickens 0-0

Bar Shanti Kirolak-Jalgi Kafe A. 1-5

XAKEA

Gipuzkoako Liga.

Fomento B.Bera - Ibarra Tolosa 1-3

LEITZA-ZIZURKIL ▶ URREZKO AIZKOLARIAK

Otaegi finalera eta
Rekondo 20 urte
azpikoaren txapelduna

Joseba Otaegi zizurkildarrak dezima bategatik irabazi zuen; Jon Rekondo leitzarrak erraztasunez eramane txapela

IMANOL GARCIA

Zumaian jokaturako Urrezko Aizkolarien Lehiaketan emaitza ezin hobea kurtu zituzten eskualdekoek. Joseba Otaegi zizurkildarrak ezustekoa eman zuen eta dezima bategatik gailendu zitzaion Xabier Mindegiari. Bestalde, Jon Rekondo leitzarrak 20 urte azpikoaren txapela eskuratu zuen nagusitasunez Mugertza II.aren aurka.

Lehia estua eta polita izan zen Otaegiren eta Mindegiaren artekoa. Zizurkildarrak ez zuen espero irabaztea eta horregatik lasai atera zen: «Ez nuen ezer galtzeko eta lasai atera nintzen», azaldu dio HITZARI. Lau kanaerdiko eta bi 15 ontzako enborrak zituzten zain. Otaegi aurreratutako egin zen lehen enborrean. Bigarrena, bai-

na, Mindegiak erdibitu zuen lehenago eta aurretik jarri zen azken enboreraino. 23 segunduko aldea zuen nafarrak, baina Otaegik indarrak atera zituen eta estu hartu zion. «Eutsi egin nion azken enborrean eta bukaeran neukan dena eman nuen», adierazi du zizurkildarrak. «Bukatu ondoren, hasieran pentsatzen nuen irabazi egin nuela, baina gero ikusi nuen berak ere enborra moztuta zuela eta ez negoen hain ziur. Azkenean epaileek denborak eman zituzten eta irabazi nuela jakin nuen». Izan ere, segundo berean amaitu zuten bi aizkolariek. Joseba Otaegik 12:00:36ko denbora egin zuen eta Mindegiak 12:00:47. Dezima bateko diferentzia, beraz. Aizkolaritzan gutxitan ikusten dena.

Oso gustura dago Joseba Otaegi egiten ari den denboraldiaz. Binakako gazteen finalean txapela lortu zuen eta banakakoan ez zuen espero hain aurrera iritea. Ingurukoek ere pozik daude aizkolaria hasiberriak egiten ari den urtearekin.

Orain finalean, binakako txapelketan bikote izan zen Iger-tza urrestildarraren aurka ariko da. Baina, datorren larunbatean izango dute bi finalista gazteek nagusien aurka jokatzeko aukera. Otaegi Jose Etxebesteren aurka ariko da. Hitzordua Urrestillan izango da, datorren larunbatean.

Rekondo, aise

Jon Rekondok lortu zuen 20 urte azpikoaren Urrezko Aizkolarien txapela, Mugertza II.a



Otaegi besoak gora dituela; arerioa, atzean, burumakur. JON URBE/BERRIA



Jon Rekondo leitzarra pozik txapela eta koparekin. JON URBE/BERRIA

aise menderatuz Zumaian jokaturako finalean. Leitzarrak 14 minutu 18 segundoko denbora behar izan zuen lana amaitzeko eta Mugertza II.a

mutrikuarrak 16 minutu eta 34 segundo. Mutrikuarrak oso egun txarra izan zuen eta leitzarrak lehen enborretik erakutsi zuen bere nagusitasuna.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK
ETXESAGASTI

Andoain. Modernoa. Kapriboz eraberritua. 70 m². Argitsua. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.

Andoain. 104 m² erabilgarri. 4 logela, 2 balkoi. Berritzeko. Ikuspegiak. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.

Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezinhobea. Lurra, garajea eta trastelekua. Etxesagasti

943 69 68 56.

Ibarra. Eraikuntza berriko etxebizitza altu polita. 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 42.000.000 pezetak. Etxesagasti. 943 696 856.

Irura. Eraikuntza berriko etxea. Egongela, sukaldia, 3 logela eta 2 bainugela. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekua. 49.000.000 pezetak. Etxesagasti. 943 696 856.

Tolosa. Eraikuntza berria. 85 m²-ko etxea, bi terraza, garajea eta 100 m²-ko bokoa bainugelarekin. Giltzak irailan. Etxesagasti. 943 696 856.

Zizurkil. Erabat eraberritutako etxebizitza bi logelarekin. Dena kanpoaldera. 3 balkoiekin. 33.800.000 pezetak. Etxesagasti. 943 696 856.

Zizurkil. 3 logelako etxebizitza. Erdizka eraberritua. Igogailua. Trastelekua. 36.000.000 pezetak.

Etxesagasti. 943 696 856.

Villabona. 72 m². Egongela, sukaldia, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 696 856.

Eskaera handia dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Ibaron [zerrenda du.](#)

ALEGIA ▶ GARAGARDO FESTA

II. Zerbeza Festak emandako emaitzekin «oso gustura»

3.000 euro inguru eskuratu ditu Intxurre kirol elkarteak; herritarren erantzuna «oso eskasa» izan dela aitortu dute



Jende andana bildu zen larunbatean Alegiako Elorri frontoian, giroaz gozatzera. HITZA

NOELIA LATABURU

«Orokorrean oso gustura gaude II. Zerbeza Festa honek eman duen emaitzekin». Hori xe zioten behin balorazioa egin ostean Intxurreko arduradunek. Datuek ere ez dute kontrarik adierazten, izan ere 3.000 euro inguru bildu dituzte Intxurre futbol taldekoek. Jende asko gerturatu zen Alegiako Elorri frontoian bi egunetan moldatu zen azokara, «gehienak kanpotarrak», jakinarazi dutenez. Guztira 1.500 litro garagardo kontsumitu zen zerbeza festan, 260 kilogramo ukondo eta 95 kilogram saltxitxa. Pintxoetarako, berriz, 8 kilo-

gramo solomo erabili ziren eta bederatzi gazta oso jan ziren denera. Frontoian 270 lagun biltzeko adina eserleku kokatu ziren, aurreko urteko azokan baino 60 aulki gehiago. 10 garagardo mota ezberdin dastatu ahal izan ziren, ohikoak zein bereziak. «Eskatuenak Gri-memberg motako horia eta

tostatu» izan zirela esan dute antolatzaileek. Halaber, Villabonako Irrintzi elkarteari, Piensos Alegi eta Alegiako Udalari eskerrak eman nahi izan dizkiete Intxurrekoek. Azokako egunetan futbolariak eta zuzendaritza-koak aritu dira lanean; horrela, ostiralean lurraldekako mailakoak jarri ziren barra atzean. Larunbatean, aldiz, jubenilen txanda izan zen. Gaztetxoek, infantilak, mahaia zerbitzatu eta bestelako lanak egiteaz arduratu ziren.

Dena den, asteburu honetan jazotako guztia ez da antolatzaileen gustuko suertatu. Herritarren erantzuna «eskasa» izan dela baieztatu dute arduradunek, bai lan alorrean, bai eta ferian izan den partaidetzan mailan ere. Antolatzaileen esanetan, «herrian arduragabekeria handia dago horrelako ekimenak antolatzerakoan». Bestalde, igandeko bazkariak ez zuen espero zuten erantzunik jaso. Festa giro herrikoa sortzeko helburua zuen ekimenak, eta 40 lagun baino ez zituen bildu paellada honek. «Penatuta gaude, herritarrek ez dutelako partaidetza bultzatu», adierazi dute.

Jardunaldiak aurrera doaz eta Intxurre kirol elkarteak hiru taldeek euren denboraldia ahalik eta hoberen amaitzeko borrokan ari dira. Lurraldekakoek zaila daukate igoera, izan ere azken postuan dira egun. Jubenilek taula erdian «erregulartasunez» bukatuko dute. Infantilek, azkenik, gogotsu ari dira Gipuzkoako Kopan sailkatzeko lanean eta aukerak izan badituzte, izan ere, bigarren postuan dira.

Jardunaldiak aurrera doaz eta Intxurre kirol elkarteak hiru taldeek euren denboraldia ahalik eta hoberen amaitzeko borrokan ari dira. Lurraldekakoek zaila daukate igoera, izan ere azken postuan dira egun. Jubenilek taula erdian «erregulartasunez» bukatuko dute. Infantilek, azkenik, gogotsu ari dira Gipuzkoako Kopan sailkatzeko lanean eta aukerak izan badituzte, izan ere, bigarren postuan dira.

Jardunaldiak aurrera doaz eta Intxurre kirol elkarteak hiru taldeek euren denboraldia ahalik eta hoberen amaitzeko borrokan ari dira. Lurraldekakoek zaila daukate igoera, izan ere azken postuan dira egun. Jubenilek taula erdian «erregulartasunez» bukatuko dute. Infantilek, azkenik, gogotsu ari dira Gipuzkoako Kopan sailkatzeko lanean eta aukerak izan badituzte, izan ere, bigarren postuan dira.

KIROLA ▶

Olaberriak bost domina lortu ditu Valentzian

Espainiako pista txapelketa jokatu da; Pagola tolosarrak ere bi domina lortu ditu

N. LATABURU

Leire Olaberria ikaztegierra jardunaldiko protagonistak bilakatu zen, asteburuan Valentziako Luis Puig Espaldromoan jokatu zuen Espainiako Pistako Txapelketan.

Bruesan aritzen den ikaztegiatarrak bost domina eskuratu zituen, hiru urrezko eta bi zilarrezko. Lehen hiru postuak 500 metro, abiadura eta keirin probetan lortu zituen, *scratch* eta puntuaketa probetan bigarren sailkatu zelarik. Olaberriaren partehartze bikainak Euskadiko selekzioaren garaipena ekarri du, Madrilgo (Espainia) selekzioaren aurretik. Ikaztegiatarrak neska txapelketa gehienak irabazi ditu, txirrindularitza munduan sartu zentuen. Orain Espainiako selekzioaren parte izateko aukerarekin amesten du.

Bestalde, Ainhoa Pagola tolosarra ere ez zen esku hutsik bueltatu etxera Espainiako txapelketatik, eta bi domina eskuratu ahal izan zituen, zilarrezko bat 500 metroko proban eta brontzezko bat beste bat abiadurakoan.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorri. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m²-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Berrobi. Eraikuntza berriko

etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garajearekin.

Berrobi. Pisu ederra 3 logela eta 2 balkoierekin. Dena kanpoaldera, eguzkitsua.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

Ibarra. San Ignazio auzoan. Etxebizitza berokuntzarekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. 6 etxe abikiaren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa !!!

Legorreta. Pisu merkea, 3 logelarekin, sukaldea, egongela, eta bañugela (berritua). Berokuntza. 142.440 euro !!!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe

bifamiliar zoragarria salgai. Terraza eta lorategiarekin. Ikusgarria !!!

Tolosa. Alde Zaharrea hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Dekoratzaleak kapritxoz apaindutako apartamentua terraza eguzkitsuarekin. Gazteentzat egokia !!!!

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 €.

Tolosa. Larramendi. Duela gutxiko eraikuntza 2 logelako etxebizitza salgai berokuntza, igogailu eta trastelekuarekin. 222.375 euro.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaroz auzoan oso egoera onean dauden etxebizitzak eta berritzeko daudenak salgai. 186.314 eurotik aurrera.

Tolosa. Belate. 3 logela eta 2 bainugela. Berritua.

Tolosa. Erdialdean. 130 m² etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, gutzit berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean gutzit berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa !!!

Tolosa. Nafarroako etorbidean gutzit berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Iurre. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Oso egoera onean.

Tolosa. Larramendi. 3 logela, egongela, sukalde berritua. 2 bainugela. Igogailua.

Tolosa. Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Trastelekua eta berokuntzarekin.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi

bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto !!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 m²-ko etxebizitza bikaina.

Tolosa. Estreinatzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailu eta berokuntzarekin !!!

Tolosa. San Frantzisko 46 m²-ko lokal komertziala.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Villabona. Arroa. Oso egoera onean dagoen etxebizitza argitsua salgai.

Ikusteko modukoa. 288.486 €.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Zizurkil. Ernio Bidea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela.

Trastelekua pisuan + ganbaran. Ezin hobeto.

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

'Ahaggar' erakusketa ikusgai

Astelehena bitarte izango da Iñaki Edrosoren argazkiez gozatzeko aukera

IÑIGO TERRADILLOS

Datorren astelehena bitarte argazki erakusketa interesgarria izango da ikusgai Belauntzako Kultur Etxean. Iñaki Edroso argazkilaria *Ahaggar* erakusketa, Aljeriako basamortu askotariko argazki erakargarrien bitartez, ehundurak, koloreak, dunak, eta harkaitz egiturak ezagutu ahal izango dira, eta basamortuetan bizi diren pertsona nobleen erretratuak ere izango dira ikusgai. Lan hau ezagutu nahi duenak, ostirala bitarte 17:00etatik 20:00etara eta larunbata eta igandean 12:00etatik 14:00eta-

ra izango du Kultur Etxera joateko aukera.

Sahararen erdian dagoen Argelia hegoaldeko mendikatea da Ahaggar. Antzina ura zerrion; urak menidak ebaki, itxura bereziko arroilak eta haitzak sortu, eta hondar fineko lautadak utzi ditu. Horrela, basamortuko formak, paisaiak, biztanleen aurpegiak eta bizimodu gogorra ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du erakusketak. Zuri-beltzean eta koloreetan egindako argazkien bidez eta ikus-entzunezkoa erabiliz basamortua zein erakargarria den ikusiko dute bertaraten direnek.



Erretratuak. Desertuko pertsonen arpegiak ikusi ahalko dira. I. EDROSO

IÑAKI EDROSO ▶ ARGAZKILARIA

«Desertuko paisaiak eta isiltasunaz gozatzea zoragarria izan zen»

Iñaki Edrosok irudia du langintza, argazkilaria eta telebistako kameralari da. Ikus-entzunezko hainbat dokumental eta erreportai egin ditu Europan, Afrikan, Pazifikokoan eta Nepalen. Oraingo honetan Aljeriako basamortuan egindako lan intersagarriarekin datorkigu pasaitarra.

Zer da erakusketa ikusiko ahalko dena?

Bi zatitan banatu dut erakusketa. Batetik, paisaiak ditugu; hemen desertuko argiak, kolore-

ak eta formak dira nagusi. Bigarren zatian pertsonen aurpegiak eta orohar desertuko bizimodua ikusiko dugu.

Noiz izan zinen desertuan?

Orain sei urte egon nintzen. 21 egunez Aljeriako hegoaldean zehar ibili nintzen argazkiak ateratzen eta bertako jendea nola bizi zen ikusten. Helburua argazkiak ateratzea bazen ere, eskalatzeko asmoarekin ere joan nintzen.

Zer ikusi zenuen bertan?

Telebistan, aldizkarietan...iku-



Paisaiak. Ehundurak, dunak, harkaitz egiturak, desertuko argiarekin itxura berezia eta ikusgarria izan ohi dute. IÑAKI EDROSO



Desertua. Forma eta kolore biziak ikusteaz gain, desertuan bizi diren bizimodua ezagutu ahalko da erakusketa. IÑAKI EDROSO



IÑIGO TERRADILLOS

sita nuen zonaldea, baina behin bertan egonda niretzat ikusgarria izan zen paisaiak nire begiz ikustea eta desertuko isiltasunaz gozatzea.

Argazkilaria ezezik kameralaria ere bazara.

Dokumentalak egin ditut Al-berto Ifurrategirekin, produk-

zio propioko lanak egiten jardun dut Pazifikokoan eta Marruecos-en eta ETBrako ere egiten ditut lanak.

Zein izango da zure hurrengo proiektua?

Mali-n eta Libian egin nahi ditut hurrengo lanak, oso leku interesgarriak dira. ◀

IBARRA ▶

Epailearen lanak eztabaida sortu zuen

3-2 galdu zuen Ibarrek Jarrillerosen aurka; etxekoan alde egin zuten epaileek

I. TERRADILLOS

Denboraldi honetan, Ibarrek zortea ez duela bere alde esan daiteke. Portugaleten Jarrilleros taldearen aurka jokaturiko larunbateko partidaren, taldeak dituen bajen-gatik jubenilen taldeko 6 jokalarik eraman zituen, eta beste baxa batekin bueltatu ziren etxera, Hautsirena hain zuten. Hau gutxi balitz, epaileek hartutako Ibarren aurkako erabakiek ere zeresana eman zuten. Partida oraindik hasteko zegoenean epaile lanak nork egin behar zituen jakin zuten ibarrek eta beldurrez hartu zuten berria ez baitute oroitzapen onik epaile horiek. Eta berriro erreplikatu zen, epaileen lana ez baitzen gustukoa izan ibarrentzat. Ezin esan daiteke gaitzeko arrazoi nagusia hori izan zenik, baina bai eragin handia izan zuela, nabaria izan baitzen etxekoan aldeko jarrera.

Cesar Roca entrenatzaileak defentsan oinarrituriko jokoa planteatu zuen Jarrilleros taldearen aurka egiteko. Bi taldeek erasoari gogor ekin ez zuten partidara. Horretan, Ibarrek bi aukera garbi izan zituen, baina aurkako atezainaren aurrean ez zuten asmatu ibarrek.

Hasieratik nabaria izan zen epailearen jarrera. Hala eta guztiz ere, Ibarra ekoek estreinatu zuten markagailua 17. minutuan 0-1eko eginez. Une horretatik aurrera epaileen lanak eztabaida handia sortu zuen. Penalti bikoitz bat ikusi zuen Ibarren aurka eta horrela lortu zuten Portugaletek berdinketa.

Bigarren zatian, Jarrillerosek maila hobea eman zuen eta 2-1eko sartu zuen berehala. Min handia egin zion gol honek Ibarriari. Hauek partidari buelta ematen saiatu ziren, baina epaileen lanak ez zuten gehiagi laguntzen. 3-1eko sartu zuten orduan Jarrillerosek. Bazirudien horrela amaizuko zela, baina azken unean bigarrena egin zuten Ibarrek. Eta 3-2 amaizuko zuten norgehiagoka.

LEITZA ▶ XXVII. HERRI KROSA

Euria eta hotza, aurtengo lasterketako protagonista

Antonio Etxeberriak eta Amaia Intxaustik lortu dute garaipena nagusietan

JAIONE ASTIBIA

Ingandean egin zen Leitzako Herri Kros Lasterketa, aurten 27. edizioa zuen, eta egin zuen eguraldi hotz eta bustia izan zen protagonistetako bat: 4°C-tako hotz-beroa, haize hotza eta noiznahi bota zituen kazkar barriak. Baina benetako protagonista horri guztiari aurre egin behar izan zieten lasterkariak izan ziren.

Orotara ume eta heldu, 250 bat lagunek parte hartu zuten jakin izan du Hitzak, datu zahatzik ematerik gabe, izan ere hauxe izan zen egin zuen giro txarraren ondorioetako bat: batez ere gaztekoen mailetan, dortsalak kartoizkoak izaki, asko eta asko hondatu egin zitzaizkien, parte-hartzearen kontakizuna ez ezik, sailkapena txukun eramatea ere eragoztiz. Garrantzitsuena parte-hartzea omen da eta aurten, zori onetako ere bai.

Horrela, goizeko 10:15ean hasi zen kirol festa, eguerdia ongi sartuta bukatu zen mailaz mailako txapeldunak erabakiz. Froga nagusietan, gizonezko seniorretan, Antonio Etxeberria iruñearra atera zen garaile (bide batez esan, ez zuela lasterketa honetako marka, 29:49koa, hobetzerik lortu, oso urrun geratuz) eta emakumezkoetan, berriz, Amaia Intxaustik olabariarra. Aipatzekoa herriko lehendabizikoak, Fernando Irazoki eta Ane Egizabal izan zirela.



Tiki nahiz heldu, bakoitzak bere ahalegina egin zuen, bere bidea, bere marka. JAIONE ASTIBIA



Gaztekoek ere, ahal zuten moduan egin zioten aurre hotzari. J. ASTIBIA

Sariak sari, lasterketa bukatu zenean, nahi izan zuen guztiak gorputza berotzeko aukera izan zuen, Karrapean banatu

zizuten salda eta pintxo beroekin. Ondoren bertso-bazkaria ere egin zuten, eguneko festa luzatuz.

LEITZA ▶

Harrobien herri kontsulta eta ikurrina hizpide gaur

Gaur asteartea, aparteko batzarra izanen dute Udalean, 21:00etatik aurrera

J. ASTIBIA

Gaur 21:00etan hastekoa den udalbatzarrean, besteak beste «harrobien buruzko herri kontsulta» izanen dute gai modura.

Behin Espainiako Ministro Kontseiluak harrobien inguruan herri kontsulta egitea baimendu zuen, nonbait erabaki horren jakinarazpena iritsi da Leitzako Udalera eta orain, kontsultaren data dute zehaztekoa, eta baita kanpainaren ezaugarriak ere. Oroitu jada, herri kontsultako galdera erabakita duela Udalak: «Leitzan harrobirik bai edo ez?», da egin beharrekoa.

Hau eta beste sei puntu ere izanen dituzte mahai gainean: «Idazkaritza eta kontuhartzaitzako lanpostuak», «plantilla organikoaren aldaketa», «Aitsasuko Feministak-ek aurkeztutako mozioa» eta eskualdeko hainbat udalekin hitzarmena adostez gain, «Leitzako EA taldeak aurkeztutako ikurrinari buruzko mozioa ere tartean izanen dute.

Azken aitatutako puntu hau, lehengo otsailaren 24ean alkatezaren aginduz, udaletako balioitza ikurrina kendu izanarekin lotutako beste mozio bat litzateke.

SAILKAPENAK ▶

Hauk dira Herri Krosaren sailkapenak mailaz maila.

EMAKUMEAK (5.000 m)

1. Amaia Intxausti (18:38).
2. Marta Muñoz (19:18).
3. Izaskun Zubeldia (19:55).

GIZONAK (10.000 m)

1. Antonio Etxeberria (31:15).
2. Raul Amatriain (32:46).
3. J. J. Cuadrado (32:54).

LEITZARRAK

1. Fernando Irazoki (34:42).
1. Ane Egizabal (23:45).

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. II. Garagardo Azoka antolatze bilerak Kultur Etxean 19:30ean.

Tolosa. Oargiren irteera asteburuan Pirinioetako Peña Forca eta Petraficha mendietara. Izen-ematea: 637 83 03 80.

Tolosa. Gazte Topaguneak larunbatean Gasteizera Tau-Granada saskibalo partidua ikustera. Izen-ematea: Kultur Etxean.

Tolosa. Tsunamia eta bere ondorioak. Zer ikas daiteke errealitatearen beste begirada batetik? hitzaldia HHIn bihar 16:00etan.

Villabona. Bilbo-Dima mendi irteera antolatu du Aizkardik iganderako. Izen-ematea: 943 69 44 58 telefonoan edo ostegunean lokalean.

ZINEMA

Tolosa. *Entre copas* 19:30ean eta 22:30ean. Leidor zineman.

AGURRAK ▶

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!

ARGAZKI LEHIAKETA ▶

UDALAITZ-ANBOTO ▶

Ramon Garmendia (Ibarra).

«Aste Santuko egun batean iluntzen ari zen eta Udalaitez mendien gailurretik Anboto ikusten genuen. Lainoen azpian izkutatua Arrasate herria dago», dio mendizale ibartar gazte honek bere argazkia azaltzeko..



ALACANT ▶

Larraitz Garmendia (Tolosa).

«Guardamar de Seguran (Alacant) aterea dago Ostiral Santu egunean. Argazkian herriko parte zaharreko etxeetako batzuk ikusten dira, eta ikusten den bezala hondartzan daude etxeak. Udan oso ondo, baina aurtengo neguan nahiko larri ibili dira, ura barrura sartuta...».

OHARRA ▶

Bihar da azken eguna HITZA Argazki Lehiaketara zuen argazkiak bidaltzeko. Mugi zaitzete!

Zure botoa

aralar

aro berria, bide berriak
erabaki ezkerretik